astiberri

10 URTETIK AURRERA



IRRI EGIN

Gidoia eta irudiak: Raina Telgemeier
Itzulpena: Miel A. Elustondo
Astiberri Ediciones. Bilbo, 2022
Kolorea. Paper-azala
224 orrialde. 14 x 20 cm. 15 euro
Txikiberri bilduma
ISBN: 978-84-18909-46-7

SALGAI URRIAREN 13TIK AURRERA

Preadoleszentziaren erretratu unibertsal bat

Aitzindaria, nazioartekoa, sari asko jasotakoa, Raina Telgemeierren lan ezagunena; azkenik, euskaraz

Raina seigarren mailan dago, eta normala izan nahi du, besterik gabe. Baina, gau batez, eskauten bilera baten ondoren, estropezu egin eta ebakortzak hausten ditu. Ondorengo hilabeteak jasanezinak izango dira berarentzat: ebakuntza bat egin beharko diote, eta metalezko bracketak, buruko arku itsusi bat, baita hortz faltsuak ere jarriko dizkiote. Baina, hori gutxi balitz bezala, lurrikara batetik "bizirik irten" beharko du, eta lehenengo maitasun-harremanak eta zirudien bezain onak ez ziren adiskidetasunak gainditu.

Raina Telgemeier *Irri egin* komikia (gaztelaniaz, "*¡Sonríe!*") Interneten argitaratzen hasi zen, eta, horri esker, 2011. urtean Eisner Saria jaso zuen, nerabeentzako argitalpen onena izateagatik. Halaber, 2016an, berriz ere autore onenari Eis-

facebook.com/astiberri @astiberri
@astiberri.infantil
ASTIBERRI
astiberri.com
485 kutxatila. 48080. Bilbo
689 213 317 • prensa@astiberri.com

ner Saria jaso zuen *Hermanas* komikiarekin; *Hermanas* ez da Irri egin komikiaren bigarren atala, baina komiki autobiografikoa da eta garai berean dago girotuta. Amerikako Estatu Batuetan lehenengo argitalpena egin eta hamabi urtera, *Irri egin* gazteentzako komikien klasiko bilakatu da, hogeita hamar hizkuntza baino gehiagoan itzuli eta lau milioi ale baino gehiago saldu ditu, eta euskaraz dugu azkenik.

Sariak
Boston Globe-Horn Book ohorezko liburua 2010
New York Times Editors' Choice 2010
Kirkus aldizkariaren hautuko liburu onena 2010
Eisner Saria adoleszenteen argitalpen onenari 2011
American Library Association elkartearen haurrentzako komiki onena 2011
Yalsa gazteentzako nobela grafikoen Top Ten zerrenda 2011

"Telgemeierrek ez ditu ez autofikzioa ez komikia asmatu, baina aitzindaria izan da bi horiek elkartzen preadoleszenteen bizitza enpatiaz lantzeko".

Tereixa Constenla, *El País*

"Rainak bikain batzen ditu adoleszentzia osatzen duten eguneroko sorpresa txikiak, drama eta lotsak… Irakurgai ezin hobea da".

Gene Yang, National Book Award sariaren irabazlea

"Liluragarria, dibertigarria eta hunkigarria".

Kirkus Reviews

RAINA TELGEMEIER (1977, San Frantzisko) nazioartean ezaguna den nobela grafikoen egilea da eta beti dago *The New York Times* egunkariaren salduenen zerrendan. Hainbat sari jaso ditu, horien artean, Eisner Saria 2011. urtean *Irri egin* (Astiberri, 2022; jatorrizko bertsioan: *Smile*) komikiari esker, 2015ean *Hermanas* komikiari esker eta 2020. urtean *Coraje* komikiari esker. 2003. urtean Friends of Lulu's Kimberly Yale saria jaso zuen *Talentu gazte onena* atalean. Bere komikiak orokorrean preadoleszentziari buruzkoak dira. Horrez gain, *Drama eta Fantasmas* nobela grafikoak sortu eta azken horrekin 2017. urtean Eisner Saria jaso zuen. Gainera, *El Club de las Canguro* sailaren nobela grafikoak egokitu eta ilustratu ditu. Era berean, *Drama* komikiak Stonewall saria jaso zuen, American Library Association elkarteak ematen duen saria homosexualitateari, bisexualitateari edo transexualitateari buruz hitz egiten duten autoreei aintzatespena egiteko. Gaztelaniaz dauden obra guztiak Maeva argitaletxeak argitaratu ditu.

BIGARREN ATALA




KONPONDUKO DIZKIZUTE?
DENA DEN, BRACKETAK JARTZEKO ASMOA ZUTEN, ETA BRACKETEK EBAKORTZEI BEHERA TIRATUKO DIETE.
ALDI BATERAKO BESTERIK EZ BADA, LASAI EGON!
SEI URTEKO HAUR BATEN ITXURA IZATEKO BELDUR NINTZEN!
EZ... BADAKIZU ZERK EMATEN DIZUN HAUR ITXURA?
ZERK?
ILE-MOTOTS HORIEK!